

Irakurleen zizare jendea

LANDARE KONTUEN txoko hone-tako nire kontularitza baldarrean zortziehingarrena idazten ari naiz. Eta hemezortzi urte eskaseko asteroko jardun hau zuri zor dizut. Zuriak ez diren eskerrak zuri. Irratiko 28 urteotako milaka saioetan entzulearekin piztu den harreman zuzena sotilagoa da hemen, meheagoa. Ba al da, non da irakurlea? Mizpiraren inguruko azkenekoei ekarpenak egin dizkieten irakurleak zu zuek denen eredu: Ibon, JR eta Martin, hau bizipoza eman didazuena. Lilura hutsa ez zara behintzat eta...

Irudipenen eta ametsen jokoetatik... Zer irudipen eta zer amets, egiazko maisu zarete. Balizko irakurlearekin harremana sotilagoa, baina irakurlearekin zorrotza. Mizpira, *Mespilus germanica*, lekuko. Santi Onaindia karmeldar ohorezko euskaltzainak bere *Euskaldunak eta osasuna* liburuan mizpira “bizioai alde-eragiteko be” ona dela dioela jaso nuen. Eta nire motzean, apaiz batek zionez, bizioa sexuarekin lotu nuen. Hor etorri zaizkit, ordea, irakurleak bizioa (“bixixoak”) hesteetako zizarea ere badela esanez. Eta arrazoi izango dutela iruditzen zait. Mizpira kozkorra, beraz, hesteetako zizareak botatzeko ona da.



WWW.KAUTEREY.COM

Artemisia abrotanum. Hau da bizio-belar jatorra, askorentzat.

Eta irakurle iragarle igarleek abiatutakotik, libratzerakoan zizare horiek ere libratzeko egokiak diren landareak bilatzeari ekin diot. Bizio-belarra, zizare-belarra... azaltzen dira bai batean eta bestean. Gehientzat *Artemisia abrotanum* da bizio-belar jatorra (zizare-belarra eta artamixa ere deitzen zaio). Zizareak kaleratzeko bezala, haizeak botatzeko eta beherakoa mozteko ona omen. Bada zizare garbitze lan horri nola edo hala lotu zaion beste landare ugari ere: mota-belarra (*Tanacetum vulgare*), otsababa emea, mingaizto-belarra eta lupu-belarra deitutakoa (*Helleborus viridis*), erruda (*Ruta* sp.), ezker-aihera (*Humulus*

lupulus), iratze arra (*Dryopteris filix-mas*), intxaur beltza (*Juglans nigra*)...

Intsektuak uxatzen dituzten landare horiek mikatzak dira, gustu txarreko izerdia edo kirats jasanezina dute. Badira pozoi puxka bat duten zizareen aurkako beste batzuk ere: sabia (*Chenopodium* sp.), tabakoa (*Nicotiana tabacum*)... Azken hori ahoan txikitu eta irentsi.

Baratxuria (*Allium sativum*) ere oso ona omen da. Baratxuri begi bat txikitu eta koilarakada pare bat urekin nahastuta hartu, egunero. Zizare jendea uxatuko duzu, baita bestelakoa ere. ■



Irakurleak galdezka

Kaixo Jakoba, zure jarraitzaile bihurtu naiz, hainbeste dakizu! Eskari batekin natorkizu. Etiket oso hurbil hiru madariondo ditugu, uste dut bi konferentzia direla eta bestea blankilla, perilla edo makatza, ez dakit ondo, baina goiz heltzen da eta gozo-gozoa da. Zaharrak dira eta urte batzuetan, iaz adibidez, ez dute askorik ema-

ten. Ez dut ipurditik moztu nahi, baina madariak jan bai, eta berriak ere ipiniko nituzke holakoxeak. Zer proposatzen didazu? Eskerrik asko zure laguntzagarritik eta hurrengo bat arte.

Errose Aurrekoetxea (Igorre)

Kaixo Errose. Izen horrekin neu ere zeure jarraitzaile bihurtzeko arriskua! Madarien itzalera joanda, zaharrak badira bizia luzatzeko: adar iharrak moztu eta jaten eman. Simaurra erruz eman eta lur buztintsua bada

baita kaera ere. Berriak eskuratzeko muintegi fidagarri batekin harremanetan jarri eta etxean dituzun arbolentzako altsumak maaltza edo udare basatian (*Pyrus pyraeaster*) edo irasagarrean (*Cydonia oblonga*) txertatzeko eskatu.

Landareei buruzko galderaren bat egin edo gairen bat proposatu nahi badiguzu, bidali mezua landareak@argia.com helbidera eta orrialde honetan bertan irakurri ahal izango duzu erantzuna.